# Bestelako Xedapenak

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### 5012

AGINDUA, 2005eko irailaren 13koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, etxebizitza familiabakarretan instalatutako igogailuei buruzkoa.

Azaroaren 8ko 2291/1985 Errege Dekretuak onartu zuen jasogailuei eta mantentze-gailuei buruzko Araudia; araudi horren 13. artikuluaren arabera, igogailuen jabeak behartuta daude lurraldeko organo eskumendunak baimendutako enpresekin igogailuen mantenimendua kontratatzera. 1987ko irailaren 23ko Agindua 1988ko urriaren 11ko Aginduak eta 1991ko irailaren 12ko Aginduak aldatu zuten; Agindu horren bidez onartutako MIE-AEM-1 Jarraibide Tekniko Osagarriaren 16.3.3 atalean ezartzen denaren arabera, mantentze-berrikuspenak, gutxienez, hilean behin egin behar dira.

Xedapen horrek mota guztietako igogailuengan du eragina, izan lokal publiko batekoa, lokal industrial batekoa, egoitza-eraikin batekoa edo etxebizitza familiabakar batekoa.

Hilero mantenimendua egin behar hori 1966an igogailuen araudia argitaratu zenez geroztikoa bada ere, kontuan izan behar da azken urteetan etxebizitza familiabakarrak ugaritu egin direla, eta etxebizitza horien solairuetara iristea errazagoa egin nahi izan denez, gero eta igogailu gehiago instalatu direla etxebizitza horietan.

Titular bakarreko etxebizitza familiabakarretan oso gutxi erabiltzen diren igogailuak egoteak, instalazioaren mantenimendua garestitzea dakar; izan ere, hilero egin behar izaten da mantenimendua, teknikoki inolako beharrik egoten ez den arren; alegia, instalazioan ez da inolako akatsik egoten edo materialak ez dira higatuta egoten.

Kontuan izan behar da, instalazioaren segurtasunari dagokionez, onargarria izan daiteekela mota horretako instalazioetan mantentze-berrikuspenaren aldiak luzatzea, horrek ez baitu ekarriko segurtasun-baldintza orokorren murrizketarik.

Ondorioz, Industriaren Kalitate eta Segurtasunari buruzko azaroaren 25eko 275/1986 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoan agindutakoarekin bat etorriz, hau

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### 5012

ORDEN de 13 de septiembre de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, sobre ascensores instalados en viviendas unifamiliares.

El Reglamento de aparatos de elevación y manutención aprobado por Real Decreto 2291/1985, de 8 de noviembre, en su artículo 13 obliga a los propietarios de los ascensores a contratar el mantenimiento con empresas conservadoras autorizadas por el órgano territorial competente. La ITC MIE AEM-1 aprobada por la Orden de 23 de septiembre de 1987, y modificada por Órdenes de 11 de octubre de 1988 y de 12 de septiembre de 1991, en su apartado 16.3.3 indica que las revisiones de mantenimiento se deben realizar al menos una vez al mes.

Esta disposición afecta a todo tipo de ascensores y es independiente de que el aparato esté ubicado en local público, industrial, edificios residenciales o viviendas unifamiliares.

Si bien la obligación del mantenimiento mensual ha venido existiendo desde la publicación del Reglamento de ascensores de 1966, hay que considerar la proliferación de viviendas unifamiliares en los últimos años y la creciente instalación de ascensores en dichas viviendas, motivada por la mejora de la accesibilidad a las diferentes plantas.

La existencia de este tipo de ascensores en viviendas unifamiliares de un único titular con una utilización muy baja, hace que el mantenimiento de la instalación sea excesivamente costoso al tener que realizarse mensualmente, no existiendo una necesidad técnica derivada del desajuste de la instalación o el desgaste de los materiales.

Debe considerarse, que en materia de seguridad de la instalación, puede ser aceptable aumentar el periodo de las revisiones de mantenimiento en este tipo de instalaciones sin que se presente una disminución de las condiciones generales de seguridad.

En su virtud, de acuerdo con lo establecido en la Disposición Final Primera del Decreto 275/1986, de 25 de noviembre, sobre Calidad y Seguridad Industrial,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Etxebizitza familiabakarretan instalatutako igogailuen berriskupena, gutxienez, lau hilabetean behin egingo du mantenimendu-enpresa batek.

*2. artikulua.–* Epe horietara egokitu ahal izateko, instalazioek norabide bikoitzeko komunikazio-sistema bat eramango dute kabinan, eta sistema horrek etengabeko mantenimendu-zerbitzu bat izango du.

AZKEN XEDAPENA

Xedapen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hogeita hamar (30) egunen buruan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko irailaren 13a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
ANA AGIRRE ZURUTUZA.

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Los ascensores instalados en viviendas unifamiliares deberán ser revisados por la empresa conservadora al menos una vez cada 4 meses.

*Artículo 2.–* Para poder acogerse a los plazos indicados, las instalaciones deberán disponer en la cabina de un sistema de comunicación bidireccional con un servicio permanente de mantenimiento.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente disposición entrará en vigor a los 30 días de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de septiembre de 2005.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGIRRE ZURUTUZA.

**5013**

EBAZPENA, 2005eko irailaren 12koa, Turismo sailburuordearena, 2005eko ekitaldiko turismoa sustatu eta merkaturatzeko laguntzak emateko jarritako baliabideak gehitu egin direla jakinarazteko dena.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko apirilaren 16ko Aginduaren bidez, turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntza-programa arautu zen (maiatzaren 21eko EHAA, 98. zk.). Horrekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak turismoari buruzko ikastaro, mintegi eta bisita teknikoak egiteko ematen dituen diru-laguntzen nondik norakoak ezarri ziren.

Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzak emateko deialdia egin zuen Turismo sailburuordearen 2005eko maiatzaren 6ko Ebazpenaren 1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, egoki iritzi zaio 2005eko ekitaldirako programan ezarritako funtsak gehitzeari.

Horregatik, 2005eko maiatzaren 6ko Ebazpenaren 1. artikuluan ezarritako ahalmenaz baliatuz, honako hau

XEDATU DUT:

***Lehenengoa.–*** 2005eko maiatzaren 6ko Ebazpenean 2005eko ekitaldirako aurreikusi diren baliabide ekono-

**5013**

RESOLUCIÓN de 12 de septiembre de 2005, de la Viceconsejera de Turismo, por la que se hace público el aumento de los recursos destinados para la concesión de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística 2005.

La Orden de 16 de abril de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística (BOPV n.º 98 de 21 de mayo) establece el marco de ayudas de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la creación, mejora, promoción y comercialización turística.

De conformidad a lo establecido en el artículo 1 de la Resolución de 6 de mayo de 2005 de la Viceconsejera de Turismo por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística, procede realizar el incremento de los fondos destinados a las ayudas que en el mismo se establecen para el ejercicio 2005.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 1 de la resolución de 6 de mayo de 2005,

DISPONGO:

***Primero.–*** Incrementar hasta un total de 100.000 euros los recursos económicos previstos para el ejerci-